

Itsaso zakarra Mutrikun

Mutriko kaia babesteko 434 metroko dike bat eta 405 metroko sarbide bat eraikitzen hasi dira; herritar gehienek portua babestea nahi duten arren, lan horiek «gehiegizkoak» direla uste dute batzuek

BEÑAT EGUES - MUTRIKU

Gorriak pasa behar izaten dituzte Mutriko (Gipuzkoa) marinelek itsasoa zakartzen denean. Olatuak gora eta olatuak behera, gogor astintzen du mendebaldeko Kardala olatuak Mutriko portuaren sarrera, eta mutrikuarrak aspalditik eskatu dute kaia babesteko neurriren bat. Eskarari, bada, iritsi zaio erantzuna: 434 metroko luzera izango duen babes dikea, eta hori eraikitzeko 405 metroko sarbidea egitea erabaki du Eusko Jaurilaritzak. Erabaki hori, baina, ez da mutrikuar guztien gustukoa izan, eta itsasoa ez ezik, herriko giroa ere zakartu da.

Hobetu Leike Mutriko herri plataformako kideek ez dute babes dike hori eraikitzerik nahi. Xabier Uranga eta Joseba Mugerza dira taldeko bi partaide, eta beren ustez «gehiegizkoa» da Eusko Jaurilaritzaren proiektua. «Guk ere portua babestea nahi dugu, baina astakeria bat da dike handi hori egitea». Portua babesteko dike txikiago bat eraikitzea nahikoa litzatekeela uste dute.


Mutriko Udala eta Mutriku Bizirik herri plataforma, baina, ez dira iritzi berekoak. Beren ustez, dikeak Mutriko portua «egokiro» babestuko du, eta arrantzaleak, seguru ibiliko dira. Mutriku Bizirik-eko partaide da Jose Agustin Elezgarai, eta pozik jaso du Jaurilaritzaren erabakia. «17 alternatiba aztertu ziren herritarren babes eskaerari erantzun bat emateko». Proposamena onartu zenean Elezgarai Mutriko alkate zen, Euskal Herritarrok alderdia ordezkatuz.

Dagoeneko hasi dira sarbidea eraikitzen, eta haserre daude Hobetu Leikeko kideak. Herria soziologikoki, paisajistikoki, ekologikoki... aldatuko dela diote, eta horrelako erabaki bat hartu baino lehen herritarren iritzia entzuteko eskatu diote Udalari.

Erreferenduma

Mutriko Udalak ez du proiektuaren inguruko herri galdeketa bat egiteko obligaziorik, hala erabaki baitzuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Oraingoz, gainera, Udalak ez du horretarako asmorik, eta berandu dela us-

MUTRIKUKO PORTUA BABESTEKO PROPOSAMENAK



te du Mutriko alkate Estanis Osinaldek. «Erreferenduma egitekotan proiektua hasi baino lehen egin behar genuen, eta ez orain, lanak hasi direnean». Bestalde dikearen inguruko galdera egokia planteatzea «oso zaila» dela iruditzen zaio. «Nik uste galdera bakar batean ezin dela dikearen etorkizuna erabaki. Hori baino nahiago nuke herriak proiektuaren parte hartuko balu, eta denon artean zerbait erabakiko bagenu». Herritarrekin bilteko prest dagoela dio alkateak.

Hobetu Leikeko partaideak atsekabeturik daude jarrera ho-

rrekin, eta diotenez, Udalak interes handia du dike hori eraikitzeko. «Oraindik dikea bakarrik eraikitzea hitzartu dute, baina atzetik proiektu handiagoa dator. Mutriko etorkizuna erabat alda dezakeen proiektua».

Portu Berriaren Plan Berezia

Eusko Jaurilaritzak Mutriko babes dikea eraikitzeko konpromisoa hartu du, soilik, baina babilite Mutriko Portu Berriaren Plan Berezia ere, geroago onartzea. Plan Berezia arabe-

ra, Mutriko portuaren egitura berrantolatuko lukete. Arrantza-leen portua kirol kai bihurtuko litzateke, eta arrantza-ontziak babes dikearen ondoan eraikiko luketen kai berrira eramango lituzkete. Gainera, gaur egun igerileku dagoen lekuan zerbitzu gunea bat eraikiko lukete, eta igerileku berria hondartzaren ondora eraman.

Mutriko Udala eta Mutriku Bizirik Plan Berezia bere osotasunean egitearen alde daude, eta bide horretatik ikusten dute herritarren garapen ekonomikoa. Estanis Osinalderen iritzi, azpie-

JOSEBA MUGERZA

(Hobetu Leikeko kidea)

«Guk ere portua babestea nahi dugu, baina astakeria bat da dike handi hori eraikitzea»

ESTANIS OSINALDE

(Mutriko alkate)

«Erreferenduma egitekotan proiektua hasi baino lehen egin behar genuen, ez orain»

JOSE AGUSTIN ELEZGARAI

(Mutriku Bizirik-eko kidea)

«Orain Mutriku dibertsifikatu egin behar du, eta herriko diru sarrerak esparru berrietara ireki»

gitura horrekin herriak «berpizteko» aukera izango luke. «Azpiegitura horrek Mutriko ekonomia eta turismoa suspertuko ditu, eta tailerrak, dendak, hotelen bat edo beste... ekarriko dituz». Jose Agustin Elezgarai ere, bide horretatik ikusten du Mutriko etorkizuna: «Orain Mutriku dibertsifikatu egin behar du, eta herriko diru sarrerak esparru berrietara ireki. Plan Berezia egitekotan turismoak gora egingo luke, eta azpiegitura egokia lortuko genuke».

Hobetu Leikeko kideak, ordea, Plan Berezia araba daude, eta onurak baino gehiago kalteak ekar ditzakeelakoan daude. Haiek ere turismoa sustatzea nahi dute, baina lan horiek Mutriko erakargarritasuna kalteko luketela uste dute. «Kirol kaia behar bada, gaur egungo portua horretarako presta dezate. Bada gaur egungo arrantza-ontzientzat eta kirol ontzientzat». Are gehiago, Plan Berezia atzera bota, eta gaur egungo kaia berrantolatzea lortuko balute, gainera, turista asko era-